

# Ttun-ttuna / Danburia

## Zuberoako ttun-ttuna / danburia

Lakarriko Pierre Errekalt egile ospetsuak egiten zituen ttun-ttun zuberotarrak eredu hartuta egindako kopia. Ttun-ttunak 79 cm. luzera du.

Intxaurrendozko gorputza eta ezpelezko larakoak ditu ttun-ttun honek. Tripazkoak diren sei hari ditu eta hauek jotzeko erabiltzen den makila (1) ezpelezkoa da. Makilarekin jotzerakoan, harien bibrazioek eragindako hotsa luzea da eta horregatik, jotzerakoan alde batetik erritmoa markatzea lortzen dugu eta bestetik bordoi gisako erresonantzi iraunkorra.

### Giltza

Ttun-ttuna afinatzeko eta honen hotsa moldatzeko eta egokitzeko giltza (2). T forma duen giltza hau bi funtzioetarako erabiltzen da:

- Larak jiratzeko eta soken tentsioa aldatuz, sokek ematen duten tonuaren afinazioa egokia lortzeko.
- Hari bakoitzak goialdeko zubian, bere gainean duen grapa metalikoa manipulatzeko. Mailu gisa duen buruarekin grapa sartu egiten da eta beste aldean duen puntarekin, palanka eginez grapa ateratzen da nahi den adina. Modu honetan moldatzen dugu grapak nola eragiten duen sokaren bibrazioarengan.

### Haria

Ttun-ttun hauen hariak, hiru eta hiru, DO eta FA tonuetan afinaturik daude. Tonika eta bosgarrena bordoi izan daitekeenez, sei hari batera jo ezkerreko FA tonuan jo dezakegu (txisturako oso egokia). DO aldeko hiru hariak bakarrik jo ezkerreko DO tonuan jo dezakegu eta FA aldeko hiruak bakarrik jo ezkerreko SIB jo genezake.


### Zubi mugikorrak

Tonu ezberdinetan jo ahal izateko zurezko bi zubi mugikor ditu. Txikiak (3) hiru hari altxatzen ditu eta handiak (4) seiak. Zubi txikia FA aldeko hiru hari azpian jarrita SOL tonua emateko utzirik, sei hariak batera jota DO eta SOL akordea ematea lor dezakegu, oso egokia DO tonuan jotzeko. Zubi handiarekin sei hariak harturik RE eta SOL akordea lor daiteke, SOL tonuan jo ahal izateko. Hiru harri bakarrik jo ezkerreko DO eta RE tonuetan jo genezake.

### Metalezko grapak

Grapa altxa eta aparte, hari ukitu gabe, jarri ezkerre, hariaren bibrazio hotsa garbia entzungo da eta hurbiltzen badugu hariaren bibrazio hotsa aldatuko da sortutako marruskaduragatik.

### TXUN TXUN HERRI SOINUTRESNAK



# Ttun-ttuna / Danburia

## *Ttunttuna / danburia zuberotarra*

Copia del modelo de *ttun-ttun* zuberotarra que fabricaba el famoso constructor de Lakarri Pierre Errekalt. Longitud: 79 cm.

La caja o cuerpo principal está fabricado con madera de nogal y las clavijas con madera de boj. Las cuerdas son de tripa y la baqueta (1) con la que se golpean las cuerdas es de boj. El sonido producido al ser golpeadas tiene mucha resonancia y por ello al tocar se consigue por un lado marcar el ritmo y por otro emitir las notas bordón de sonoridad continua.

### Llave

Llave metálica (2) sirve para afinar y modular el sonido del ttun-ttun. Tiene forma de T y se utiliza para dos funciones específicas:

- Para hacer girar las clavijas y de ese modo alterar la tensión de las cuerdas hasta conseguir la afinación deseada.
- Para manipular la grapa metálica que cada cuerda tiene sobre ella en el puente superior. Con la parte que hace de cabeza del martillo se golpea la grapa para introducirla y con la parte que termina en punta, haciendo palanca, se extrae la grapa dejándola a la altura que se quiera. De este modo podemos incidir en las vibraciones de la cuerda y alterar su sonido.

### Cuerdas

Las cuerdas de este Ttun-ttun están afinadas, tres y tres, en DO y FA. Teniendo en cuenta que la tónica y la quinta son las notas bordón, si golpeamos las seis cuerdas al unísono podemos tocar en el tono de FA. Si golpeamos solamente las tres cuerdas afinadas en DO podemos tocar en la tonalidad de DO y si golpeamos solamente las tres afinadas en FA podremos tocar en SIb.

### Puentes desplazables

El ttun-ttun lleva un par de puentes desplazables que nos permiten poder tocar en diferentes tonalidades. El corto (3) abarca tres cuerdas y el largo (4) las seis. Si colocamos el corto bajo las tres cuerdas afinadas en FA, golpeando las seis cuerdas podemos dar el acorde DO - SOL, adecuado para tocar en el tono de DO. Si colocamos el puente largo bajo las seis cuerdas de tal manera que den el acorde RE y SOL, podremos tocar en el tono de SOL. Así mismo, tocando solo tres cuerdas, podremos tocar en DO y en RE.

### Grapas metálicas

Si elevamos la grapa y la dejamos de tal modo que quede aparte, sin que toque la cuerda, las vibraciones sonoras de la cuerda sonarán limpias. Al introducir la grapa en el puente hasta que haga un leve contacto con la cuerda, se produce un cambio en el sonido a causa del rozamiento.

TXUN TXUN HERRI SOINUTRESNAK

